**JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA**
**OGASUN ETA**
**HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**
**HERRIZAINGO SAILA**
**INDUSTRIA, MERKATARITZA**
**ETA TURISMO SAILA**
**ETXEBIZITZA ETA**
**GIZARTE GAIETAKO SAILA**
**NEKAZARITZA, ARRANTZA**
**ETA ELIKADURA SAILA**

**3726**

107/2008 DEKRETUA, ekainaren 10ekoa, EAEn izandako ohiz kanpoko uholdeak direla-eta, aparteko laguntzak prestatzeko dena.

2008ko maiatzean eta ekainean izandako ohiz kanpoko uholdeek kalte handia egin zuten EAEko ondasun publiko zein pribatuetan eta enpresetan ere, batez ere, udalerri jakin batzuetan; horrenbestez, behar-beharrezkoa da horri erantzun, eta, elkarrekin ondo koordinatuta, aparteko neurriak hartzea, kalte horiek nolabait arintzearren.

Azaldutako guztia oinarri dela, gaia aztertuta eta halaxe proposatuta bai Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak, bai Herrizaingo sailburuak, bai Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak, bai Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak, baita Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak ere, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako erabakia hau hartu du 2008ko ekainaren 10ean egindako bileran:

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Dekretuaren xedea.

Dekretu honen xedea hau da: 2008ko maiatzean eta ekainean izandako uholdeen ondorioz, industria, merkataritza, zerbitzu, ostalaritza, turismo, nekazaritza ustiategi, eraikuntza, etxebizitza eta ibilgailu automobilen arloetan Euskal Autonomia Erkidegoan izan dituzten kalteak arintzeko laguntzak esleitzea.

***2. artikulua.***– Laguntzak.

Dekretu honetako laguntzen ezaugarriak: Finantza entitateek kaltetutako aktiboak birjartzeko edo konpontzeko kaltetuei eslei diezazkien lehentasunezko maileguen interes tasak murriztea. Onuradun bakoitzak eska dezakeen maileguaren gehienezko zenbatekoak ez du gaindituko laguntzen gai diren inbertsioan balioa, halaxe baitago jasota Dekretu honetako 7. eta 11. artikuluetan. Ibilgailu automobilei dagokienez, IV. kapituluan aurreikusitako diru-laguntzak hartuko dira aintzat.

**VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO**
**DEPARTAMENTO DE HACIENDA**
**Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**
**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**
**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,**
**COMERCIO Y TURISMO**
**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA**
**Y ASUNTOS SOCIALES**
**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,**
**PESCA Y ALIMENTACIÓN**

**3726**

DECRETO 107/2008, de 10 de junio, de ayudas excepcionales con ocasión de las inundaciones extraordinarias acaecidas en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Las recientes inundaciones extraordinarias, acaecidas en mayo y junio de 2008, han provocado daños que afectan a los bienes públicos y privados y a la actividad empresarial de la Comunidad Autónoma de Euskadi con particular incidencia en algunos municipios, siendo necesario adoptar, de forma coordinada, medidas dirigidas a paliar las consecuencias de dichos daños.

En su virtud, a propuesta de la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública, y de los Consejeros de Interior, de Industria, Comercio y Turismo, de Vivienda y Asuntos Sociales, y de Agricultura, Pesca y Alimentación, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 10 de junio de 2008,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto del Decreto.

Es objeto del presente Decreto la concesión de ayudas para paliar los daños producidos por las inundaciones acaecidas en mayo y junio de 2008 en los sectores de la industria, el comercio, los servicios, la hostelería o turismo, las explotaciones agrarias, la construcción y la vivienda y los vehículos automóviles en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

***Artículo 2.***– Ayudas.

Las ayudas que se otorgan al amparo del presente Decreto consistirán en la reducción del tipo de interés de los prestamos preferenciales que concedan las Entidades Financieras a los damnificados para la reparación o reposición de los activos dañados. El importe máximo del préstamo a solicitar por cada beneficiario no podrá superar el valor de las inversiones susceptibles de ayuda, tal como se definen en los artículos 7 y 11 de este Decreto. En el caso de vehículos automóviles las ayudas consistirán en las subvenciones previstas en el capítulo IV.

***3. artikulua***.– Laguntzen bateragarritasuna.

Dekretu honetako laguntzak bateragarriak dira beste herri administrazio batzuek ezartzen dituztenekin. Dekretu honen II., III. eta IV. kapituluetako laguntzak ere bateragarriak dira euren artean.

***4. artikulua***.– Baliabide ekonomikoak.

2008ko aurrekontu arruntean Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, Herrizaingo Sailari eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari dagozkien aurrekontu-atalen kontura izango dira dekretu honetan ezarritako diru-laguntzetarako baliabide ekonomikoak.

***5. artikulua***.– Kalteak kreditatzea eta kaltetua izatea.

Uholdeen eraginez izandako kalteak egon badaudela eta horien zenbatekoa ofizioz kreditatu beharko ditu EAEko Administrazioak. Administrazioen arteko harremanak gidatzen dituzten lankidetza- eta koordinazio-printzipioez baliatuz (30/1992 Legeko 3.2 artikulua), izandako kalte horien tasazioaren argibideak Aseguru Partzuergoari eska dakizkioke.

Norbait kaltetua dela ofizioz frogatuko du Administrazioak, eta interesdunak ez du aldez aurretik ziurtagiririk aurkeztu beharko.

II. KAPITULUA
ETXEBIZITZA ETA ERAIKINAK KONPONTZEKO MAILEGUAK

***6. artikulua***.– Onuradunak.

Ondorengo artikuluetan ezarritako berariazko baldintzak betetzen dituztenak izan daitezke kapitulu honetan ezarritako laguntzen onuradun:

a) Uholdeek eragindako etxebizitzen, eranskinen eta elementu komunen jabe, gozamendun edo maizter diren pertsona fisikoak. Nahitaezko luzapen-kontratua duen maizterra izanez gero, konponketaren gai diren etxebizitzaren edo eranskinen titularraren baimena beharko dute.

b) Nagusiki etxebizitzetarako diren eraikinen higiezinen jabeen elkarteek, uholdeek elementu amankomunetan kalterik eragin badie.

c) CNAE 45 eraikuntza-enpresek, burutze bidean diren eraikuntza eta/edo urbanizazio obrak eduki eta uholdeek kalterik eragin badie.

***7. artikulua***.– Laguntza jaso dezakeen inbertsioa.

1.– Kapitulu honen ondorioetarako, konpondu eta/edo beste bat jartzeagatiko zenbatekoa subentzionatu ahalko da, baldin eta kalteak ondoko hauetan gertatu badira:

***Artículo 3***.– Compatibilidad de las ayudas.

Las ayudas previstas en el presente Decreto son compatibles con las que se establezcan por otras Administraciones Públicas. Asimismo, son compatibles entre sí las ayudas previstas en los capítulos II, III y IV de este Decreto.

***Artículo 4***.– Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a las ayudas establecidas en esta norma lo serán con cargo a las partidas presupuestarias del presupuesto ordinario de 2008 de las secciones correspondientes a los Departamentos de Industria, Comercio y Turismo, Vivienda y Asuntos Sociales, Agricultura, Pesca y Alimentación e Interior.

***Artículo 5***.– Acreditación de los daños y condición de damnificado.

La acreditación de la existencia y del montante de los daños producidos por las referidas inundaciones se practicará de oficio por la Administración de la Comunidad Autónoma. A tal fin, en ejercicio de los principios de cooperación y coordinación del artículo 3.2 de la Ley 30/1992, que presiden la actuación de las relaciones interadministrativas, podrá solicitarse información de la tasación de esos daños producidos al Consorcio de Compensación de Seguros.

La condición de damnificado se comprobará de oficio por la Administración, sin que el interesado deba aportar previamente certificación alguna.

CAPÍTULO II
PRÉSTAMOS PARA LA REPARACIÓN DE VIVIENDA Y EDIFICACIONES EN CURSO

***Artículo 6***.– Beneficiarios.

Podrán acceder a las ayudas establecidas en el presente capítulo, previo el cumplimiento de los requisitos específicos que se señalen en los artículos siguientes:

a) Las personas físicas que tengan la condición de propietarios, usufructuarios o arrendatarios de viviendas o de sus anexos y elementos comunes afectados por las inundaciones. En caso de ser arrendatario con contrato sujeto a prórroga forzosa deberá contar con la autorización del titular de la vivienda o anexos objeto de la reparación.

b) Las comunidades de propietarios de inmuebles de edificios destinados principalmente a vivienda afectados por las inundaciones en elementos comunes.

c) Las empresas de construcción CNAE 45, con obras de edificación y/o urbanización en curso de ejecución que hubieran resultado afectadas por las inundaciones.

***Artículo 7***.– Inversión susceptible de ayuda.

1.– A los efectos del presente capítulo, se considerará inversión susceptible de ayuda el importe de las reparaciones y/o reposiciones que procedan como consecuencia de los siguientes daños:

a) Batez ere etxebizitzarako diren higiezinen elementu komunak.

b) Etxebizitza, garaje edo trastelekurako diren elementu pribatiboak.

c) Batez ere etxebizitzarako eta/edo urbanizazioetarako diren eraikinak edota burutze bidean dauden urbanizazioak.

2.– Oro har, kalteak kuantifikatzeko beharrezkoa izango da kasuan kasuko konponketa-proiektua aurkeztea, teknikari gaitu batek egina, ondoren, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko lurralde ordezkariak onar dezan. Proiektuak uholdeen ondorioz sortutako kalteak konpontzeko obrak gauzatzearen aurrekontua jasoko du, bai eta proiektua idatzi eta gauzatzeagatiko gastuak eta aipatu obra dela-eta ordaindutako edozein tasa edo prezio publiko ere (BEZa kanpo).

Babes daitekeen inbertsioak inoiz ere ezingo du gainditu honako zenbatekoa hau: obraren guztirako aurrekontuari beste laguntza batzuen zenbatekoa eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak eta aseguru-etxeek aurreikusitako kalte-ordainen balioa kentzetik ateratzen dena.

3.– Aurreko a) eta b) paragrafoetan, laguntzaren gai den inbertsioak ezingo ditu gainditu zenbateko hauek:

– Etxebizitzetarako: 700 euro, metro karratu erabilgarriez biderkatzetik ateratzen dena; eta 90 metro karratuko gehienezko azalera konputatuko da (familia ugariko kasuetan izan ezik, horietan gehienezko azalera 120 metro karratukoa izango baita).

– Eranskinetarako diren eraikinen elementu amankomunetan edo pribatiboetan: 425 euro, metro karratu erabilgarriez biderkatzetik ateratzen dena; eta 30 metro karratuko gehienezko azalera konputatuko da.

4.– Burutzeko bidean diren eraikuntza edo urbanizazioko obretan izandako kalteen kasuan, babestuko den inbertsioaren muga konponketen guztirako aurrekontuaren % 85a izango da, Jaurlaritzak azkenengoz argitaratutako ìprezioen datua baseaîrekin bat etorriz kalkulatuta, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak eta aseguru-etxeek aurreikusitako kalte-ordainen balioa murriztu eta gero.

***8. artikulua.***– Mailegu-eragiketen ezaugarriak.

Mailegu-eragiketek, arau honen babesean eta horren indarrez finantza-erakundeekin izenpetzen den hitzarmenaren babesean formalizatuko diren inbertsio subentzionagarriak finantzatuko baitituzte, ezaugarri hauek edukiko dituzte:

a) Maileguaren zenbatekoa lagundu daitekeen inbertsioaren % 100ekoa izan daiteke, goitik jota.

b) Amortizatzeko epea 7 urtekoa izango da hasierako gabealdia barne dela, zeina, oro har, 12 hilekoa izango den.

a) En elementos comunes de inmuebles destinados principalmente a vivienda.

b) En elementos privativos destinados a vivienda, garaje o trastero.

c) En edificaciones destinadas principalmente a vivienda y/o urbanizaciones, que se hallen en curso de ejecución.

2.– Con carácter general, para la cuantificación de los daños será necesaria la presentación del correspondiente proyecto de reparación, redactado por técnico competente, para su posterior aprobación por el Delegado Territorial del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales. El proyecto recogerá el presupuesto de ejecución de las obras de reparación de daños causados por las inundaciones, así como los costes de redacción y dirección del mismo, incluso cualesquiera otra tasa o precio público satisfechos por razón de la reparación citada (excluido el IVA).

La inversión susceptible de ayuda no podrá superar la cantidad resultante de deducir del presupuesto total de obra el importe de otras ayudas y el valor de las indemnizaciones previstas por el Consorcio de Compensación de Seguros y las compañías de seguros.

3.– En los supuestos a) y b) anteriores, la inversión susceptible de ayuda no podrá ser superior:

– Para viviendas: al importe resultante de multiplicar 700 euros por los metros cuadrados útiles, con un máximo de 90 metros cuadrados (salvo cuando se trate de familias numerosas, en cuyo caso, el máximo será de 120 metros cuadrados).

– Para elementos comunes y privativos anejos: al importe resultante de multiplicar 425 euros por los metros cuadrados útiles de los mismos hasta un máximo de 30 metros cuadrados en los anejos vinculados.

4.– En el caso de daños en obra de edificación o urbanización, en curso de ejecución, la inversión susceptible de ayuda se situará en el 85% del presupuesto total de reparaciones, calculado de acuerdo con la última «Base de datos de precios» del Gobierno publicada, una vez deducido el valor de las indemnizaciones previstas por el Consorcio de Compensación de Seguros y las compañías de seguros.

***Artículo 8***.– Características de las operaciones de préstamo.

Las operaciones de préstamo para la financiación de las inversiones susceptibles de ayuda que se formalicen al amparo de la presente norma y del convenio suscrito con las entidades financieras en virtud de la misma tendrán las siguientes características:

a) El importe del préstamo será, como máximo, el 100% de la inversión susceptible de ayuda.

b) El plazo de amortización será de hasta 7 años, incluyendo el posible período de carencia inicial que será de 12 meses.

c) Aplikatuko den gehienezko interes tasa Euribor gehi 0,50 puntu izango da.

d) Irekitzeko komisioa baino ezingo zaio aplikatu, gehienezko kostua % 0,25ekoa izanik.

e) Maileguak modu linealean amortizatuko dira, kuota iraunkorra izanik, eta hiruhileko aldizkotasuna.

***9. artikulua.***– Laguntzen ezaugarriak.

1.– Hobari-tasa, oro har, % 5 puntukoa izango da arau honen babesean eta horren indarrez finantza-erakundeekin izenpetutako hitzarmenaren babesean formalizatzen diren eragiketen interesa murrizteko erabiliko da.

2.– Diru-laguntza behin bakarrik ordainduko zaio dagokion finantza-entitateari; eta entitate horrek mailegu-eragiketatik kapital bizia kenduko du. Diru-laguntzaren zenbatekoa honela kalkulatuko da: eragiketatik sortutako kostu erreala eta epe-muga bakoitzean ordaindu beharreko interesei zuzenenean diru-laguntza aplikatzetik ateratzen dena bera izango da. Erabiliko den eguneratze tasa % 4,30koa izango da.

III. KAPITULUA
INDUSTRIA, MERKATARITZA, ZERBITZU, TURISMO ETA NEKAZARITZA ARLOETARAKO MAILEGUAK

***10. artikulua.***– Onuradunak.

1.– Kapitulu honetan ezarritako laguntzen onuradun, hauek izan daitezke: datozen artikuluetan adierazten diren betekizun berezien betetzea egiaztaturik, industria, merkataritza, nekazaritza, zerbitzuak, ostalaritza eta turismoaren arloetako jarduerak burutzen dituzten Euskal Autonomia Erkidego pertsona fisiko nahiz juridikoak. Horretarako, 2008ko maiatza eta ekaineko uholdeek kaltetutakoak izan beharko dute.

2.– Onuradunek, nekazaritzako jarduerei dagokienez, ogibide behineneko nekazariak izan behar dute, uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, eta euren ustiategiak lurralde historiko bakoitzari dagokion Nekazaritza Ustiategien Erregistroan egon beharko dute inskribatuta.

***11. artikulua.***– Laguntza jaso dezakeen inbertsioa.

1.– Dekretu honen ondorioetarako, lagundu daitekeen inbertsiotzat ondorengoa joko da:

a) Uholdeen ondorioz kalteturik geratu ziren aktibo finkoak konpontzeko edo erosteko behar den zenbatekoa, Aseguruak Konpoentsatzeko Partzuergoak eta aseguru-etxeek aurreikusitako kalte-ordainen balioa eta laguntzen zenbatekoa murriztu eta gero.

Enpresa behar bezala martxan jartzeko beharrezko diren osagarrizko inbertsioak ere, behar izanez gero, lagundu ahalko dira. % 50ean jarriko da muga aktiboak konpondu edo erosteko.

c) El tipo de interés máximo aplicable será el Euribor más 0,50 puntos.

d) El único gasto aplicable será la comisión de apertura con un coste máximo de 0,25%.

e) La amortización de los préstamos se efectuará de forma lineal, con cuota constante y periodicidad trimestral.

***Artículo 9.***– Características de las ayudas.

1.– La bonificación será de 5 puntos porcentuales y será aplicada a reducir el interés de las operaciones de préstamo formalizadas al amparo de la presente norma y del convenio financiero suscrito en virtud de la misma.

2.– El abono de la subvención se realizará de una sola vez a la entidad financiera correspondiente y ésta la aplicará íntegramente a la reducción del capital vivo del préstamo. El importe de la subvención será calculado de tal modo que el coste efectivo anual resultante de la operación sea equivalente al obtenido por la aplicación directa de la subvención sobre los intereses a pagar en cada vencimiento. Para ello se utilizará una tasa de actualización del 4,30%.

CAPÍTULO III
PRÉSTAMOS AL SECTOR INDUSTRIAL, COMERCIAL, AGRARIO, DE SERVICIOS Y TURÍSTICO

***Artículo 10.***– Beneficiarios.

1.– Podrán acceder a las ayudas establecidas en el presente Capítulo, previo el cumplimiento de los requisitos específicos que se señalen en los artículos siguientes, las personas físicas o jurídicas que desarrollen actividades industriales, comerciales, agrarias, de prestación de servicios y de hostelería o turísticas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, y que hayan sido damnificadas por las inundaciones de mayo y de junio de 2008.

2.– En el caso de actividades agrarias, los beneficiarios, deberán ser agricultores a título principal conforme lo previsto en el Decreto 168/1997, de 8 de julio, debiendo estar sus explotaciones inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias del correspondiente Territorio Histórico.

***Artículo 11.***– Inversión susceptible de ayuda.

1.– A los efectos del presente Decreto se considerarán inversiones susceptibles de ayuda:

a) El importe de la reparación o de la adquisición de activos fijos en concepto de reposición de los dañados con ocasión de las inundaciones, una vez deducido el importe de otras ayudas y el valor de las indemnizaciones previstas por el Consorcio de Compensación de Seguros y las compañías de seguros.

Adicionalmente, en su caso, las inversiones complementarias necesarias para la adecuada puesta en funcionamiento de la empresa, con un límite del 50% del importe de la reparación o adquisición de los activos.

b) Aktibo zirkulatzaileak birjartzeak dakarren zenbatekoa, aseguru-etxeek edota Aseguruen Konpentsaziorako Partzuergoak aurreikusiriko kalteordainak zenbateko horretatik kenduta ondoren.

2.– Hondatutakoen ordez enpresaren aktiboari gehitzen zaizkion aktibo finkoek, izaera desberdinekoak izanik ere, ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

a) Enpresaren xede sozialarekin zuzenean lotuta daudenak izatea.

b) Aktiboak lehenengo aldiz erabili edo abian jartzea.

c) Gutxienez hiru urteko amortizazio-aldia ezarrita izatea.

d) Hirugarrenei ez lagatzea.

e) Enpresaren aktiboan gutxienez hiru urte iraun dezatela.

f) Enpresa eskatzaileak berak fabrikatuak, eginak edo garatuak ez izatea.

3.– Edonola ere, aktibo finkoetarako inbertsio-proiektuek edo aktibo zirkulatzaileak birjartzeko proiektuek Euskal Autonomia Erkidegoko kaltetutako lekuetan kokatuta egon beharko dute, urte honetako abenduaren 31 baino lehenago kontratatuak eta dirulaguntza emateko ebazpenean finkatuko den epean burutzekoak.

4.– Aktiboen preziotzat haien balio garbia hartuko da, hau da: fakturatutako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendu ondoren; eta, aktibo zirkulatzaileen kasuan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak tasaturiko galera garbiaren zenbatekoa.

***12. artikulua.***– Mailegu-eragiketen ezaugarriak.

Mailegu-eragiketek, arau honen babesean eta horren indarrez finantza-erakundeekin izenpetzen den hitzarmenaren babesean formalizatuko diren inbertsio subentzionagarriak finantzatuko baitituzte, ezaugarri hauek edukiko dituzte:

a) Maileguaren zenbatekoa lagundu daitekeen inbertsioaren % 100ekoa izan daiteke, goitik jota.

b) Amortizatzeko epea 7 urtekoa izango da hasierako gabealdia barne dela, zeina, oro har, 12 hilekoa izango den.

c) Aplikatuko den gehienezko interes tasa Euribor gehi 0,50 puntu izango da. Eragiketa elkarrekiko berme-sozietateren batek babesten badu, aipatu interesa 0,25 puntu jaitsiko da.

d) Irekitzeko komisioa baino ezingo zaio aplikatu, gehienezko kostua % 0,25ekoa izanik.

e) Maileguak modu linealean amortizatuko dira. Kota iraunkorra izango da eta aldizkotasuna hiruhilekoa.

b) El importe de reposición de activos circulantes, una vez deducido el importe de otras ayudas o indemnizaciones previstas por el Consorcio de Compensación de Seguros y las compañías de seguros.

2.– Los activos fijos, aunque fueran de características distintas a los dañados, que se incorporen al activo de la empresa en reposición de aquellos deberán reunir las siguientes condiciones:

a) Que estén directamente relacionados con las actividades que constituyen el objeto social de la empresa.

b) Que sean utilizados o entren en funcionamiento por primera vez.

c) Que tengan establecido un periodo mínimo de amortización de tres años.

d) Que no se cedan a terceros.

e) Que permanezcan en el activo de la empresa un mínimo de tres años.

f) Que no hayan sido fabricados, realizados o desarrollados por la empresa solicitante.

3.– En todo caso, los proyectos de inversión en activos fijos o la reposición de activos circulantes deberán estar localizados en la Comunidad Autónoma de Euskadi, haberse iniciado las operaciones de contratación de los mismos con anterioridad al 31 de diciembre del presente año y ejecutarse en el plazo que se fije en la resolución de concesión de las ayudas.

4.– Se considerará como precio de los activos fijos su valor neto, entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido y, en el caso de activos circulantes, el importe de la pérdida neta tasada por el Consorcio de Compensación de Seguros.

***Artículo 12.***– Características de las operaciones de préstamo.

Las operaciones de préstamo para la financiación de las inversiones susceptibles de ayuda que se formalicen al amparo de la presente norma y del convenio suscrito con las entidades financieras en virtud de la misma tendrán las siguientes características:

a) El importe del préstamo será, como máximo, el 100% de la inversión susceptible de ayuda.

b) El plazo de amortización será de hasta 7 años, incluyendo el período de carencia inicial que será, con carácter general, de 12 meses.

c) El tipo de interés máximo aplicable será el Euribor más 0,50 puntos. En el caso de que la operación venga avalada por una sociedad de garantía recíproca, el tipo de interés se reducirá en 0,25 puntos.

d) El único gasto aplicable será la comisión de apertura con un coste máximo de 0,25 puntos.

e) La amortización de los préstamos se efectuará de forma lineal, con cuota constante y periodicidad trimestral.

***13. artikulua***.– Laguntzen ezaugarriak.

1.– Hobari-tasa, oro har, % 5 puntukoa izango da eragiketei aplikatutako interes-tasarekiko, betiere, erabaki honen babesean eta horren indarrez finantza-erakundeekin izenpetutako hitzarmenaren babesean formalizatzen diren eragiketetan.

Mailegu eragiketa SGR batek abalatuko balu, aipatutako laguntza hori % 0,25ean gehituko litzateke.

2.– Diru-laguntza guztia, dena batera, aldi berean ordainduko zaio kasuan kasuko finantza-erakundeari, eta erakunde horrek maileguaren kapital bizia murrizteko erabiliko du kopuru oso-osoa eskuratzeko orduan.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatutakoan, kopuru berbera eman behar dute, bai eragiketatik urte osorako sortzen den kostu errealak, bai eta epe-muga bakoitzean ordaindu beharreko interesei zuzenenean diru-laguntza aplikatuta ateratzen denak. Horretarako % 4,30eko eguneratze tasa erabiliko da.

IV. KAPITULUA
IBILGAILU AUTOMOBILAK
BIRJARTZEKO LAGUNTZAK

***14. artikulua***.– Laguntzak.

Ibilgailu automobilak kaltetu badira, 2.000 eurora arteko laguntza esleituko da beste ibilgailu bat erosteko; betiere ibilgailuaren guztizko balioa izango da muga eta erosketa lau hilabeteren barruan egin beharko da, dekretu honek indarra hartzen duenetik kontatzen hasita. Ibilgailuak sinatuta eta indarrean izan beharko dute nahitaezko asegurua. Kalteen ziurtagiria ofizioz lortu ahal izango da Administraziotik, 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu ibilgailuaren titularrak:

• Polizaren kopia eta/edo ibilgailuaren aseguruaren azken ordainagiria.

• Ibilgailuaren behin betiko bajaren deklarazioa, Trafikon izapidetua.

• Ibilgailu berriaren erosketa-faktura.

V. KAPITULUA
PROZEDURA

***15. artikulua***.– Eskakizunak.

1.– Dekretu honetan arautzen diren laguntzak jasotzeko, eskakizun hauek bete beharko dira:

a) Onuradun izatea, dekretu honetako 6., 10. eta 14. artikuluetan adierazitakoaz bat etorriz.

b) Dekretu honetako I., II. eta/edo III. eranskinetan azaltzen diren inprimakien arabera aurkeztea eskabidea. Inprimakiak eskuratzeko lekuak:

***Artículo 13.***– Características de las ayudas.

1.– El tipo de bonificación, con carácter general, será de 5 puntos porcentuales sobre el interés aplicable a las operaciones formalizadas al amparo de la presente norma y del convenio suscrito con las entidades financieras en virtud de la misma.

En el caso de que la operación de préstamo esté avalada por una Sociedad de Garantía Recíproca se incrementará un 0,25% la ayuda antes citada.

2.– El abono de la subvención se realizará de una sola vez a la entidad financiera correspondiente y ésta la aplicará íntegramente a la reducción del capital vivo del préstamo, en el momento de su recepción.

El importe de la subvención será calculado de tal modo que el coste efectivo de la operación sea el mismo que el obtenido por la aplicación directa de la subvención sobre los intereses a pagar en cada vencimiento. Para ello se utilizará una tasa de actualización del 4,30%.

CAPÍTULO IV
AYUDAS PARA REPOSICIÓN DE VEHÍCULOS
AUTOMÓVILES

***Artículo 14.***– Ayudas.

En caso de daños a vehículos automóviles, se concederá una ayuda de hasta 2.000 euros para la adquisición de otro vehículo, con el límite del coste total de éste último, siempre que la compra se produzca en el plazo de 4 meses a partir de la entrada en vigor del presente Decreto. Los vehículos deberán tener suscrito y en vigor, al menos, el seguro obligatorio correspondiente. La certificación de daños se obtendrá de oficio por la Administración de acuerdo con lo establecido en el artículo 5.

A estos efectos, el titular del vehículo deberá aportar la siguiente documentación:

• Copia de la póliza y/o último recibo del seguro del vehículo.

• Declaración de Baja Definitiva del vehículo tramitada en Tráfico.

• Factura de adquisición del nuevo vehículo.

CAPÍTULO V
PROCEDIMIENTO

***Artículo 15.***– Requisitos.

1.– Para poder acceder a las ayudas previstas en el presente Decreto se deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Ostentar la condición de beneficiario, de conformidad a lo señalado en los artículos 6, 10 y 14 de este Decreto.

b) Presentar la solicitud de acuerdo con los impresos que figuran en los anexos I y II y/o III de este Decreto:

– Eusko Jaurlaritzako egoitzak: arretarako puntuak (Zuzenean Zerbitzua):

• Vitoria-Gasteiz, Samaniego kalea, 2.

• Bilbao, Kale Nagusia, 85.

• Donostia-San Sebastián, Andia kalea, 13.

– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde bulegoak:

• Vitoria-Gasteiz, Samaniego kalea, 2.

• Bilbao, General Concha kalea, 23.

• Donostia-San Sebastián, Easo kalea, 10.

– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko lurralde ordezkaritzak:

• Vitoria-Gasteiz, Samaniego kalea, 2.

• Bilbao, Kale Nagusia, 85.

• Donostia-San Sebastián, Andia kalea, 13.

– Trafikoko lurralde bulegoak:

• Vitoria-Gasteiz, Samaniego kalea, 2.

• Bilbao, Ercilla kalea, 4.

• Donostia-San Sebastián, San Marcial kalea, 12.

Interesdunek www.ejgv.euskadi.net atarian eskura ditzakete argibideak, edo Eusko Jaurlaritzako 012 –Zuzenean– telefonora deituz. Gainera eskabide-inprimakiak eskura ditzakete interesdunek aurreko lerroaldeetan aipatutako egoitzetan edo www.ejgv.euskadi.net atarian.

2.– Eskabidea interesdunak berak edo bera ordezkatzen duen pertsona batek egingo du aurreko artikuluan adierazitako egoitzetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusten diren bideen bat erabiliz.

3.– Eskabideak aurkezteko epea 2008ko urriaren 31n amaituko da.

***16. artikulua***.– Agiriak.

Interesdunak eskabide inprimakiari (I. eranskina) honako agiri hauek erantsi beharko dizkio:

II. kapituluan arautatako laguntzetarako (etxebizitzak)

a) IFK/NAN kopia.

b) Etxebizitzaren eta/edo eranskinen jabetza, tenentzia edo erabilera egiaztatzen duen agiria (eskritura).

c) Nahitaezko luzapeneko kontratua bada, etxebizitzaren eta/edo eranskinen titularraren baimena.

d) Familia ugariaren titulu-kopia, hala bada.

e) Hondatutako ondasunak konpontzeko edo berriz jartzeko egin behar diren inbertsioei eta gastuei buruzko txostena. Inbertsio-proiektuen edo aktibo zirkulatzaileak birjartzearen pro formako fakturak edo behin betikoak aurkeztu beharko dituzte aurrekoa frogatzeko.

f) Finantza-erakundeak eta eskatzaileak izenpetutako mailegu-eragiketaren eskabidearen kopia (II. eranskina).

– Sedes del Gobierno Vasco: Puntos de atención general (Servicio Zuzenean):

• Vitoria-Gasteiz, calle Samaniego, 2.

• Bilbao, calle Gran Vía, 85.

• Donostia-San Sebastián, Andia kalea, 13.

– Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo:

• Vitoria-Gasteiz, calle Samaniego, 2.

• Bilbao, calle General Concha, 23.

• Donostia-San Sebastián, calle Easo, 10.

– Delegaciones Territoriales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales:

• Vitoria-Gasteiz, calle Samaniego, 2.

• Bilbao, calle Gran Vía, 85.

• Donostia-San Sebastián, Andia kalea, 13.

– Oficinas Territoriales de Tráfico:

• Vitoria-Gasteiz, calle Samaniego, 2.

• Bilbao, calle Ercilla, 4.

• Donostia-San Sebastián, calle San Marcial, 12.

Los interesados podrán obtener información en el portal www.ejgv.euskadi.net o a través del servicio de atención Zuzenean (teléfono 012). Así mismo podrán obtener los impresos de solicitud, para su presentación, en las sedes antes citadas o en el portal www.ejgv.euskadi.net.

2.– La solicitud se realizará por el interesado o persona que lo represente, y deberá remitirse, a cualquiera de las sedes señaladas en el apartado anterior por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

3.– El plazo de presentación de solicitudes finalizará el día 31 de octubre de 2008.

***Artículo 16***.– Documentación.

1.– El interesado deberá adjuntar al impreso de solicitud (anexo I) la siguiente documentación:

Para las ayudas reguladas en el capítulo II (Vivienda):

a) Copia del CIF/DNI.

b) Documento acreditativo de la propiedad, tenencia o uso de la vivienda y/o anejos (escritura).

c) Autorización del titular de la vivienda y/o anexos en el supuesto de contrato sujeto a prórroga forzosa.

d) Copia del título de familia numerosa, en su caso.

e) Memoria explicativa de las inversiones y gastos necesarios, debidamente acreditados con presupuestos o facturas proforma o definitivas de los proyectos de inversión o de reposición de activos circulantes.

f) Copia de la solicitud de la operación de préstamo suscrita por la entidad financiera y el solicitante (anexo II).

g) Beste edozein gorabehera, eskatzailearen iritziz esanguratsua baldin bada.

III. kapituluan araututako laguntzak (Industria, merkataritza, nekazaritza, zerbitzuak eta turismoa):

a) IFK/NAN kopia.

b) Enpresaren ordezkariaren notaritza-ahalmenaren kopia, pertsona juridikoen kasuan.

c) Hondatutako ondasunak konpontzeko edo berriz jartzeko egin behar diren inbertsioei eta gastuei buruzko txostena. Inbertsio-proiektuen edo aktibo zirkulatzaileak birjartzearen pro formako fakturak edo behin betikoak aurkeztu beharko dituzte aurrekoa frogatzeko.

d) Finantza-erakundeak eta eskatzaileak izenpetutako mailegu-eragiketaren eskabidearen kopia (II. eranskina).

e) Beste edozein gorabehera, eskatzailearen iritziz esanguratsua baldin bada.

2.– IV. kapituluan araututako laguntzen kasuan (ibilgailu automobilak) eskabide inprimakiari (III. eranskina) honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a) IFK/NAN kopia.

b) Ibilgailuaren jabetza egiaztatzen duen agiria (gida baimena).

c) Ibilgailuaren Behin Betiko Bajaren deklarazioa.

c) Ibilgailu berriaren erosketa faktura.

3.– Edozein kasutan ere, Saileko organo kudeatzaile eskumendunak egokitzat jotzen dituen agiriak eta argibideak eska diezazkioke eskatzaileari, eskabidea behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

